

Familia eta ordezeko zaintza

Seme-alaba jaiotzea berri ona da gurasoentzat baina, era berean, jaiotza horrek aldaketak dakartza familiaren dinamikan eta, ondorioz, hainbat erabaki hartu beharra izaten da. Bikotean, biek etxetik kanpo lan egiten dutenean, lanean dauden denbora-tarte horretan, seme-alabak zein zainketa mota jasoko duen erabaki beharko da.

Familiek erabiltzen dituzten ordezeko zaintzaren ohiko moldeak:

- Lan-eremuan etxe-zerbitzuan haurtxoak zaindu eta etxeko lanak egiten dituen pertsona bat kontratatzea. Pertsona horiek ez dute kualifikaziorik haur hezkuntzan eta zaintza-lan hori haurraren eta zaindariaren nortasunaren ezaugarrien mende egongo da.
- Haurren zaintza aitona-amona edota familia zabaleko senideren baten (osaba-izekoak esaterako) ardurapean burutzen denean. Zaintza osoa edota partziala izan daiteke gurasoek lan egiten duten bitartean.
- Hartzaindegia edo hezkuntza-zentro publiko edota pribatura joz: bertan haurra, 4. hilabetetik aurrera lan-ordutegiaren barnean, kualifikazio zehatza duten pertsonak zainduta dago.

Gurasoek hartutako aukera zeinahi den, zaintza kalitatezkoa eta denboran egonkorra dela ziurtatu behar da, haurrak lorpenak erdiesteko suspertzeaz gain, maitasuna ere behar duela kontuan hartuta.

Ordezko zaintzaren ezaugarri hobezinak honakoak dira:

- Zaintza hori ordezkoa soilik izatea, funtsezko zaintza bihurtu gabe: gurasoek seme-alabekin pasatzen duten denbora ahalik eta gehien aprobetxatu behar dute eta beraien seme-alabekin denbora partekatu ahal izateko, denbora planifikatzeko esfortzua egin behar dute.
- Posible bada, ordezeko zaintza ez da egun osoan zehar luzatu behar. Gomendagarria da gurasoek edo behintzat bietako batek, hurrekin gosaltzeko, bazkaltzeko edo afaltzeko tarteak konpartitzea.
- Garrantzitsua da ordezeko zaintza egonkorra izatea eta haurren beharrei egoki erantzutea. Lehenago adierazi bezala, ordezeko zaintzaren kalitateak -egonkorra eta sentibera- seme-alabei kanpoko mundua aztertzekeo segurtasuna ematen die, beraien mugimenduzko garapena, adimenezkoa, soziala eta emozionala finkatuko dituen estimulu berriak errazten dituelarik.

Laburpena

Ordezko zaintza honela definitu daiteke: pertsonaren eskolatzeko formalaren aurretik, gurasoak ez diren bestelako pertsonak, ume txikien zaintza, arreta eta estimulazio jarduerak antolatzen dituztenean. Ordezkoa deitzen da gurasoek hornitutako zaintza, arreta eta estimulazioa ordezkatzen dituelako. Aukera edozein izanik ere, bikotean hitzartutakoa izan behar da, betiere kontuan hartuta, ordezko zaintzaren antolakuntza, seme-alaben hezkuntzaren inguruko lehenbiziko erabakia izan behar dela bikotean. Hori dela eta, oinarritzkoa da bikotearen artean gaia adostekoan eta aukera egokiena zein den erabakitzerakoan, familia zabalarekiko zein baldintza espezifiko dituzten jakitea: lan-egoera, egoera ekonomikoa, emozionala...

Ainhoa Manzano Fernández Doktorea
Juan Luís Martín Ayala Doktorea
ETXADI
Familia-psikologia Unibertsitate-zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia